

# Ikustea eta entzutea

Mabi Revuelta

*“Ikustea eta entzutea dira bizitzak dituen gauza noble bakarrak. Gainerako sentimenak eta haragikoiak dira. Aristokrazia bakarra ezer ere ez ukitzea da. Ez hurbitzera: horixe da aitaren seme izatea”\_Pessoa*

Edozein larruazal arreta handirik jarri gabe laztantzeak ileak edo adatsa deitzen diegun harizpi batzuen banaketa adierazten du, gutxi gorabeherako lodiera duten zonen arabera. Horien kokapen topografikoak, luzerak eta ezaugarriek ileari dagokion espeziea, eta bereziki gizakiarena den ala ez den zehazten dute. Ileaz hitz egiteak animaliarengana gehiago hurbiltzea emanten duen arren: piztiak dira ilajea harro erakusten dutenak, gizakiok gorputzean zehar banatutako biloa dugun bitartean, baita adatsa ere buruan kokatzen denean. Zalantzarik gabe, izaki kulturalak aurkitu ahal izan dituen termino poetikoenak dira azken horiek, bere izatearen ezaugarri basatiei ere uko egiteko.

Ukimenaren esperientzia pulsio erotikoari oso lotuta agertzen da. Irudimenetik fetitxearen merkatura, kontsumoaren erakusleioek berriro ere gure itxura asmatzera gonbidatzen gaituzte, botak, oinetakoak eta bestelako osagaiak animaliarenean aztarna bihurtzen dituzten estaldura epidermikoen bidez. Asfaltotik birsortutako hurbilketa kulturalak dira, begirada luxuaren azokan finkatuta dagoelarik. Espazio mestizo eta kezkarriak, non arrisku dosi handiak eta plazerraren eta sedukzioaren objektuarekiko erakargarritasuna sorrarazten baitiren. Erotismoa eta indar gordina erlazionatzeko ahalbidetik bistaratzen diren lekuak. Maitasuna eta biolentzia dira istorio honen protagonistak. Beraz nor egin diezaioke uko Bengalako tigrea bezalako katu bat ukitzeko tentazioari, deabru arraiatu edo pinportaduna, zoologikoko burdinesien artean ere giza haragiaren zaporea ahazten ez duena?

Itxura berak, portaera berberak. Zebraren antzera urkoloreak sortzen dituzten izarak samintasunez oroitzen ditut, eta nire leopardozko oinetakoak ere biziki maite ditut; azken finean, larruazal batek bestea jazten du. Mozorrotu egiten du.